

## AGINTARIAK ETA LANGILERIA

### Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

#### OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

## 3192

*1084/2024 EBAZPENA, ekainaren 13koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiarena, zeinaren bidez aldatzen baita Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren otsailaren 8ko 285/2024 Ebazpena, zeinaren bidez argitaratzen baita txanda irekiko eranskinean ageri diren pertsonak estatutupeko langile finko izendatzen direla, Fakultatibo Mediko eta Teknikoen lanbide-taldeko Mediku kategorian (Ospitaleko Pediatriako FEM lanpostu funtzionala), Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu sanitarioetako erakundeetako destinoetarako.*

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendarinagusiaren otsailaren 8ko 285/2024 Ebazpenaren bidez argitaratzen da txanda irekiko eranskinean ageri diren pertsonak estatutupeko langile finko izendatzen direla, Fakultatibo Mediko eta Teknikoen lanbide-taldeko Mediku kategorian (Ospitaleko Pediatriako FEM lanpostu funtzionala), Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu sanitarioetako erakundeetako destinoetarako.

Osakidetzako zuzendari nagusiaren otsailaren 8ko 284/2024 Ebazpenaren bidez, argitaratu zen barne-sustapeneko txandako eranskineko izangai esleipendunak estatutupeko langile finko izendatzen direla, Fakultatibo Mediko eta Teknikoen lanbide-taldeko Mediku kategorian (Ospitaleko Pediatriako FEM lanpostu funtzionala), Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu sanitarioetako erakundeetako destinoetarako.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza Baliabideen zuzendariaren otsailaren 15eko 93/2024 Ebazpenaren bidez, zuzendu egin zen azaroaren 7ko 904/2022 Ebazpena, zeinaren bidez onartu baitzen Mediku kategorian (Ospitaleko Pediatriako FEM lanpostu funtzionala), Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu sanitarioetako erakundeetako destinoetarako, estatutupeko langile izaera lortzeko hautaprobetarako onartutako eta baztertutako izangaien behin betiko zerrenda, eta Osakidetzaren webgunean argitaratu zen 2022ko azaroaren 11n.

Zuzenketa horren eta hainbat ebazpenen ondorengo aldaketen ondorioz, otsailaren 8ko 285/2024 Ebazpena aldatu behar da, Ebazpen honen ebazpen-zatian adierazitako moduan.

Indarrean dagoen legediak emandako ahalmenez baliaturik,

#### EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Aldatzea, eranskinean ezarritako eran, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian 2024ko otsailaren 20an argitaratutako 285/2024 Ebazpena, otsailaren 8koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiarena, zeinaren bidez argitaratzen baita txanda irekiko eranskinean ageri diren pertsonak estatutupeko langile finko izendatzen direla, Fakultatibo Mediko eta Teknikoen lanbide-taldeko Mediku kategorian (Ospitaleko Pediatriako FEM lanpostu funtzionala), Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu sanitarioetako erakundeetako destinoetarako.

Bigarrena.– Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 51. artikuluan xedatutakoaren arabera, otsailaren 8ko 285/2024 Ebazpenaren eta otsai-

laren 8ko 284/2024 Ebazpenaren xedapenen baliozkotasunari eusten zaio, Ebazpen honen bidez egindako aldaketen eraginpean ez egon ez daitezten.

Hirugarrena.— Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak, Euskadiko Antolamendu Sanitarioaren ekainaren 26ko 8/1997 Legeak eta Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Estatutu Sozialak ezartzen dituen azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuak ezarritakoaren arabera, Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtoa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, Ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren ekainaren 13ko 1084/2024 Ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzeko agintzen da.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko ekainaren 13a.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusia,  
MARÍA ROSA PÉREZ ESQUERDO.

2024ko uztailaren 3a, asteazkena

## ERANSKINA

OSAKIDETZAREN LAN-ESKINTZA PUBLIKOA 2018-2019

DESTINOEN ESLEIPENA

KATEGORIA: FAK. ESP. OSPITALE-PEDIATRIAKO MEDIKUA

TXANDA: TXANDA IREKIA

NAN/AIZ	Izangaia	Destino esleितua	Hizkuntz eskakizuna / Data derrigorrezkoa
***9797**	Satrustegi Ariziturri, Miren	Arabako ESI / Ospitalea (ospitalea eta anbulatorioa) - Ospitaleko arreta - Ospitaleko arreta / Larrialdien Unitatea - Pediatriako Larrialdiak - Pediatriako Larrialdiak / Arab. U. Ospitalea - Txagorrit - Kanpo Kontsult Eraik, Vitoria - Arab. U. Ospitalea - Santiago / Txandakakoa, 3 Txandatan - Txandakakoa, 3 txandatan - Guardiekin	2 2016-12-03
***3529**	Eizmendi Bereciartua, Miren	Debagoieneko ESI / Ospitalea (ospitalea eta anbulatorioa) - Ospitaleko arreta - Ospitaleko arreta / Zerbitzu Klinikokoak - Ospitaleko Pediatria - Ospitaleko Pediatria / Debagoieneko Ospitalea / Goizez - Goizez 08:00-15:00 - Guardiekin	2 2023-12-03